

BAZTANGO ELKARTEEK 2024. URTEAN EGINEN DITUZTEN KULTUR JARDUERETARAKO
DIRULAGUNTZAK ARAUTZENDITUZTEN OINARRIAK

Baztango Udalak, elkarteek jarduera kulturalak antola ditzaten babestearren sustatzeko, aritzeko oinarri hauek onetsi ditu norgehiagokan.

Deialdi honetarako diru-kopurua, gehienez ere, **22.000 eurokoa da, 2024. urteko aurrekontuan dagoen 1-3340- 4890000 “Kultur elkarten diru-laguntzak” kontu-sailean jaso.** 1-3340-4890001 aurrekontu-zuzkidura osoa agortzen ez bada, Baztango Udalak 1-3340 4890000 kontu sailera zuzenduko du.

1. Xedea.

1.1. Ondoko ezaugarriak dituzten kultur jarduerak antolatzeko dirulaguntza ematea:

- a) Euskararen erabilerari laguntzen diotenak izatea.
- b) Formakuntzak (ikastaroak, lantegiak, hitzaldiak...) izatea.
- c) Sormen lanak (erakusketak...) izatea.
- d) Artistikoak (antzezlanak, bideo emanaldiak, kontzertuak...)edo antzeko izaera duten bertze batzuk izatea.
- e) Herritar guziendako irekiak izatea.
- f) Genero-berdintasuna eta/edo emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea.

1.1.1. Deialdi honetatik kanpo geldituko dira ondoko jarduerak:

- a. –Hezkuntza programetan aurreikusitako edo horiei lotutako irakaskuntza-jarduerak.
- b. –Kirol-jarduerak.
- c. –Herriko bestetakoak eta laguntza jarduerak.
- d. - Udalerritik kanpo egiten direnak.
- e. Nafarroako Gobernuak edo bertze erakunde batzuek diruzerabat lagunduak.
- f. Egoitza edo lokalak egokitzeko lanak edo hirigintza arlokobertze edozein lan.
- g. Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, langileen nominak...); mantenu gastuak (bazkariak, afariak, etab), kilometrajea eta musika taldeek sortutako gastuak (orkestrak).
- h. Ezaugarri sexistak, arrazistak, ala indarkeriakoak barne hartzen dituzten jarduerak.

- i. Udal eskaintzarekin lehiatuko diren jarduerak.
- j. Elkarrekin beste erakunde batzuei diruz laguntzen dizkieten jardueren gastuak.

k- Sukaldaritza- eta gastronomia-ikastaroa

l -Erraldi eta buruhandien erosketak

m. Obra birsortzeko ez den bertze erabilera bat izan de-zaketen jantziak, edo merkataritza-sustapeneko ar- tikuluak izan daitezkeenak.

1.1.2. Hauek izanen dira diruz lagunduko direnak:

a) Antolakuntza. Kultur proiektua egiteak eta garatzeak zuzenean eragiten dituen gastuek baino ez dute dirulaguntzajaso. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu bezala, ez osorik ezta zati batean ere, erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeak eragindako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak, egitura funtzionala mantentzeko gastuak, alokairuak...).

2. Betebeharrak.

Dirulaguntza hauen onuradunek ondoko betebeharrak hauek dituzte:

1.- Irabazi asmorik gabeko elkarteak izatea.

2.- Zerga egoitza eta helbide soziala Baztanen izatea.

3.- Zerga eta Gizarte Segurantzako ordainketak eguneratuta izatea eta Baztango Udalarekin zorrik ez izatea.

4.- Ezin izanen dira onuradun izan dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako egoeraren batean dauden erakundeak. III. eranskinean jasotakoaren arabera (4.baldintza).

Onuradunek baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte.

1. Baldintza. Elkarrekin estatutuen aurkezpena. Baztango Udalak agiri horiek jada bere eskuetan baditu, nahikoa izanen da agiri horiek aldatu ez direla adierazten duen legeko ordezkariaren aitortzea, agiri horiek ez direla aldatu. III eranskina ikusi.

3. Deialdia eta izapidea.

Eskabideak behar bezala beterik telematikoki aurkeztu beharko dira, Baztango Udalaren erregistro elektronikoaren bidez Sede Electrónica - BAZTAN edo edozein erregistro ofizialen bidez, elkartearen legezko ordezkariak duen pertso-nak.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 8ra arte izanenda, egun hori barne.

Deialdian aurkezteak oinarri hauek onartzea dakar eta eskabideak emandako ereduaren arabera bete beharko dira (I. Eranskina). Jarduerak 2023ko azaroaren 8tik 2024ko azaroaren 8ra bitartean egingen dira, biak barne.

Dirulaguntzak emateko prozedura antolatze eta bideratzeko organo eskuduna Alkatetza edo honek ahalmen hori eskuordetzan ematen dion organoa izanen da.

Balorazioa. Eskabideen ebazpen-proposamena egiteko eskumena izanen duen balorazio-batzordea honako hauek osatuko dute: kultura zinegotziak, kultura teknikariak eta talde politiko bakoitzak izendatutako zinegotzi batek.

Era berean, balorazio-batzordeak haren kide ez direnteknikarien aholkularitza eskatu ahal izanen du.

4. Dirulaguntza ematea

Emanen den gehienezko zenbatekoa ez da diruz laguntzen ahal diren eta onartu diren gastuen % 75 baino gehiago izanen.

Dena dela, dirulaguntzen onuradunek ezin izanen dute 6.000€ baino gehiago jaso deialdi bakoitzeko.

Baztango Udalak, kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, egokitzat jotzen duen bertze edozein dokumentazio osagarri eskatu ahal izanen dio eskatzaileari, aurkeztutako eskaeraren balorazioa egiteko.

Errekerimenduak posta elektronikoz egingen dira, eskaera- inprimakian jasotako helbidera zuzenduta.

Dirulaguntza eman baino lehenago, behar izanez gero, batzordeak eskatzaileari deitu ahal izanen dio honek behar dituen azalpenak eman ditzan.

Udalak onartutako dirulaguntza ordainketa bakarrean emanen du, gastuak justifikatu ondoren: burututako jardueraren oroitidazkia edo memoria (II. Eranskina), jarduera egiteko erabili diren bertze dirulaguntzen edo bertzelako diru-sarreraren gaineko erantzukizun-aitorpena.

Gastuen justifikazioa aurkezteko epea 2024ko azaroaren 8ra arte izanen da, egun hori barne.

Onartutako gastuen % 100 justifikatuko da, ez Baztango Udalak emandako dirulaguntza kopurua bakarrik. Gastuak kultur elkartearen izenean dauden jatorrizko fakturen bidez justifikatuko dira; horiek, behin egiaztatu eta zigilatu ondoren, dirulaguntzaren eskatzaileari bueltatuko zaizkio. Faktura horietan bilduko dira legeek eskatzen dituzten datu guztiak eta baita jarduera edo zerbitzuaren deskripzio zehatza ere. Hartu- agiriak bertze modu batez egiaztatu ezin diren gastuen kasuan bakarrik onartuko dira, eta, edonola ere, hartu-agiria sinatzen duen pertsona ezin izanen da enpresaria edo profesionala izan; hala balitz, faktura egin eta ematera behartuta bailegoke. Hartu-agiriak datu hauek bildu behar ditu: jaulkitzailearen eta jasotzailearen izen-abizenak, IFZa eta helbidea; ekintza edo zerbitzuaren deskripzio zehatza; prezio osoa, eta tokia, data eta jasotzailearen sinadura.

Ordainagiriekin eta fakturekin batera, banku-ordainagiriak aurkeztu beharko dira.

5. Irizpideak.

1.1 Kultur jarduerak antolatzeko oinarrian ezarritakoaren arabera eskatutako laguntzetan, honako hau baloratuko da:

1.–Jarduera tokiko kulturari lotua izatea lehenetsiko da. % 10.

2.–Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea. % 10.

3.–Herritarren parte hartzea baloratuko da. Borondatez kolana kontuan hartuko da. % 10.

4.–Jarduera erakunde eskatzaileak berak eta haren kideek antolatua eta burutua izatea. % 30.

5.–Baztanen egoitza soziala duten erakunde desberdinen arteko elkarlana baloratuko da. % 10.

Entitate batek antolatzaile gisa agertu behar du, eta gainerakoak parte hartzaile gisa. Elkarre antolatzaileak jarduerari dagokion dirulaguntza jasoko du.

Laguntzaren eskabidean, entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen konpromisoak adierazi behar ditu, baita haietako bakoitzagatik aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere.

(IV. Eranskina)

6– Elizondotik kanpo egiten diren ekitaldiak, Baztango gainerako herrietan egiten direnak alegia, baloratuko dira. %10 .

6. Udalaren betebeharrak.

Diruz lagundutako jarduerak agendan sartzea, betiere antolatzaileek epearen barnean horren berri ematen badute. Udalak bere materialak, baliabideak eta lokalak laga beharko ditu.

7. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzak jasotzen dituztenek honako betebeharrak izan behar dituzte:

–Dirulaguntzen onuradunek jasotako laguntza zehaztutako xedeetarako erabili behar dute eta hala izan dela agirien bidez ziurtatu.

–Onuradunek behin proiektua akituz gero, jardueraren oroitidazkia edo memoria (II eranskina), balantze ekonomikoa (gastuak eta diru-sarrerak) eta jarduera egiterakoan izandako gastuen frogagiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak) aurkeztu beharko dituzte, 2024ko azaroaren 8a baino lehen.

–Onuradunek diruz lagun daitezkeen jarduerak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortzen badituzte, zenbatekoak Baztango Udalari jakinarazi beharko dizkiote.

–Onuradunek indarrean dagoen araudia bete beharko dute, batez ere Baztango Udal esparruan euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen ordenantza.

–Onuradunek dirulaguntza jaso duten jardueren publizitate eta hedapenerako Baztango Udalaren ikurra erabili beharko dute.

–Onuradunek programaren garapenean gertatzen den edozein gorabehera, gertatzen den unean berean jakinarazi beharko diote Baztango Udalari.

Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragitendituen edozein irudi saihestu beharko dira, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta -identitateen aniztasunaren balioak dituen irudiak sustatu.

- Horretarako, onuradunek, "Guía sobre estrategias de comunicación incluyente: El Género como prioridad" gidakontsulta dezakete, helbide honetan eskuragarri dagoena: <http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/30B6ABA1-F8D6-468F-8CBB-D5808B5F6575/118955/GUIADECOMUNICACION1213.pdf>

-Elkarte eskatzaileek memoria bat aurkeztu beharko dute, diruz lagundutako jardueraren erabiltzaileen edo onuradunen eta proiektua edo jarduera gauzatzeko atxikitako langile kontratatuen edo boluntarioen datuak sexuaren arabera berezita.

Oinarrietan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez bada, laguntza osorik edo hein batean baliogabetuko da eta, hala badagokio, itzuli egingen da.

8. Dirulaguntzaren itzulketa.

Dirulaguntzak emateko ebazpena baliorik gabe utziko da eta jasotako diru-kopuruak itzuli beharko dira dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluko

I. eta II. kapituluetan araututako kasuetan eta ezarritako moduan.

9. Arau-hausteak.

Dirulaguntzen eta laguntza publikoen arloko arau-hausteak eta zehapenak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera arautukodira.

10. Errekurtsoak.

Deialdiak agiri honek bildutako baldintzei jarraituko die; agiriak ez bildutakoari dagokionez, ondoko arauei jarraituko die: Nafarroako Tokiko Administrazioaren Foru Legea, Nafarroako Tokiko Ogasunen Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea eta, osagarri gisa, Aurrekontuen gaineko Lege Orokorra, estatu mailan dirulaguntzak arautzen dituena.

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtso hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

1.–Jakinarazi eta hurrengo hilabetean, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen udalorganoari zuzendua (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena). Berraztertze errekurtsoa aurkezten bada, ezin da ez goiti jotzekorik ez administrazioarekikorik aurkeztu, harik eta lehenbizikoa ebatzi edo atzera botatzen den arte. Berraztertze errekurtsoaren ebazpenaren kontra ezin izanen da errekurtso hori bera berriz aurkeztu.

2.–Hilabeteko epean, jakinarazpenetik hasita, gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua (uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea). Errekurtsoa aurkezten bada, ez da administrazioarekikorik aurkezten ahalko, harik eta gora jotzekoa ebatzi edo atzera botatzen den arte.

3.–Bi hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, jurisdikzio horretako organo eskudunari zuzendua (uztailaren 13ko 29/1998 Legea).

11. Legedi aplikagarria.

Diru-laguntza hauek, oinarri hauetaz gain, Baztango Udalaren kasuan kasuko ekitaldiko aurrekontua betearazteko oinarriek arautzen dituzte, baita ondoko legeek ere: 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Toki-Administrazioaren gainekoa; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa,

dirulaguntzei buruzkoa; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onesten duena, eta horiekin bat datorren gainerako legeria.

I Eranskina (Eskabidea)

II Eranskina (Memoria)

III. Eranskina (Erantzukizunpeko adierazpena)

IV Eranskina (elkarteen arteko akordioa)